

LC01-2017 Zerbitzuak, programak eta jarduerak kudeatzeko erdi-mailako teknikarien zerrenda.

HIRUGARREN ARIKETA.

- Denbora: **ordu eta erdi.**
- **Hiru suposizio**, zeinetan egoera bat aurkezten den, eta galdera zehatz bat edo bat baino gehiago egiten. Suposizio bakoitzak gehienez 10 puntuko zuzeneko puntuazioa du.
- Ariketa osoaren 30 puntuak 20ra moldatuko dira, oinarrietan jasotzen denaren ildotik.
- OHARRA. Hiru orri bereiz entregatu beharko dituzu, **suposizio praktikoko bakoitzeko bana**. Goiburuan horri dagokion **zenbakia** adierazi beharko duzu, **eta** egokitu zaizun **zuzenketa-gakoa**.

LEHEN SUPOSIZIOA

Hirian antzerkia sustatzeko proiektu bat martxan jartzea erabaki du Kultura Zerbitzuak. Hauek dira helburu nagusiak:

- Arte eszenikoak herritarrengana hurbiltzea.
- Ikusleko berriak bilatzea.

Aurrekontu-partida bat onartu da horretarako, eta udal sareko antzokietan eta espazio publikoan gauzatuko den arte eszenikoaren diziplina desberdinetako ikuskizunen programa defini dezazula eskatu dizute, eta programan parte hartuko duten ikuskizunen zerrenda eman dizute. Hortik abiatuta, programaren kudeaketaz arduratu behar duzu.

Zerrenda itzazu, eta azaldu, zehazki, izango dituzun zeregin nagusiak.

BIGARREN SUPOSIZIOA

2017an sortu den **Kirola Zabalduz** kirol klubak, zeinek Gasteizko Zabalzana auzoan baitu egoitza, idazki bat bidali dio Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren ardura duen zinegotziari, eta hau jakinarazten dio bertan:

- Futbol-5 kirolaren praktika sustatzeko asmoz sortu zen kluba.
- Kirol txapelketa bat antolatu nahi dute udal instalazioetan, kluba promozionatzeko eta beren eragin-eremuko bizilagunek —baita, oro har, Gasteizko biztanleek ere— ezagut ditzaten.
- Txapelketa irekia izango da, 9 urtetik 14ra arteko haurrentzat.

Datu hauek ematen dira idazkian: lehendakariarenak, kirol jardueraren arduradunarenak, bien telefonoak, posta elektronikoko helbideak eta klubaren egoitzaren helbidea.

Zabalganeko zonako lantaldeko kidea zaren aldetik:

- 1) Azter itzazu idazki edo eskabidearen ezaugarriak.
- 2) Planifika ezazu txapelketa egiteko Udalaren eta klubaren artean bideratu beharreko prozesua.
- 3) Azaldu itzazu txapelketa eginez gero —eskabidearen haritik— zeure gain hartu beharko dituzun zeregin nagusiak, udal teknikariei dagozkien funtzio eta eskumenak kontuan izanik.

HIRUGARREN SUPOSIZIOA

Haurrei zuzendutako opor-jarduerak eskaintzen ditu urtero Hezkuntza Zerbitzuak. 2017an kontratazio-prozesu bat jarri da martxan hori bideratzeko, diru-zenbateko jakin batekin. Nolanahi ere, hezkuntza premia bereziak dituen haurrik bada izena ematen dutenen artean, eta halakoei arreta eskaintzeko begirale gehiago behar badira —edo beste laguntza-neurri batzuk— zenbateko hori handitzerik izango da.

Hezkuntza Zerbitzuaz gain, beste udal zerbitzu batzuek ere programatzen dituzte opor-jarduerak. Horregatik, herritarrei udal eskaintza bakarra helarazteko, sailen arteko lantalde bat koordinatzen du Hezkuntza Zerbitzuak, eta beste zazpi udal zerbitzuek parte hartzen dute bertan. 2017an, 2399 leku eskaintzen ditu Udalaren opor-programak, 66 jardueratan.

Lehen galdera: 1,5 puntu

Zein motatako kontratua jarri beharko zenuke martxan Hezkuntza Zerbitzuak kudeatzen duen opor-programa kontratatzeko, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan —kontratazioaren xedearen edo kontratatu beharreko jardueraren motaren arabera— ezarri zen kontratuen sailkapena kontuan izanik?

Bigarren galdera: 2,5 puntu

Kontratazio-prozesu administratiboari ekiteko, teknikaria zaren aldetik, baldintza teknikoek agiria prestatu behar duzu, Hezkuntza Zerbitzuaren opor-programaren zerbitzua kontratatzeko. Hainbat alderdi arautzen ditu baldintza-agiriak, kontratazioaren baldintzak eta eman beharreko zerbitzua zehazte aldera, eta lehiatzen diren enpresen artean hautaketa egiteko aukera emate aldera. Adieraz itzazu baldintza-agiri horretan kontuan hartu beharko zenituzkeen oinarritzko lau alderdi, eta arrazoitu itzazu gehienez zortzi lerrotan.

Hirugarren galdera: 3 puntu

Esan bezala, hainbat udal zerbitzuek eskaintzen eta kudeatzen dituzte opor-jarduerak. Hala ere, herritarrei begira, eskaintza bakarra egiten du Udalak. Horregatik, zerbitzuen artean irizpideak bateratzeko ahaleginak egiten dira, liburuxka berean eskaintzen da programazio osoa, eta izena emateko prozesua berbera da jardueraren guztietarako. Hezkuntza Zerbitzua arduratzen da opor-jardueretan inplikaturako zerbitzu guztietako teknikariek osatzen duten lantaldea koordinatzeaz. Adieraz itzazu, gehienez hamar lerrotan, lantalde hori koordinatzeko zeure gain hartu beharko zenituzkeen funtzio eta zeregin nagusiak.

Laugarren galdera: 3 puntu

Opor-jardueretan parte hartzeko izena eman beharra dago. Izena emateko prozesuak bi hilabete iraun ohi du, eta fase hauek ditu: eskabideak aurkeztea, eskabideen arteko zozketa, zozketan lekua lortu dutenek izen-ematea formalizatzea, hutsik geratzen diren lekuak argitaratzea, eta hutsik geratu diren lekuak esleitzean lekua lortu dutenek izen-ematea formalizatzea. Diseina ezazu izena emateko prozesuaren egutegia, bost faseak kontuan izanik, baita opor-jarduerak uztailean izan ohi direla ere. Fase bakoitzerako hilabetea eta datak adierazi behar dituzu, baita bakoitzaren egun-kopurua ere.